



UDALBILTZA PARTZUERGOA

Akats zuzenketa

Indarrean dagoen legeriak ematen dion eskuduntzaren arabera Lehendakariak ondorengoa

EBATZI DU

Akats batzuk atzeman dira 2021eko urtarrilaren 19ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (11 zk.), "Geuretik Sortuak" proiektuko "sormen" bekak emateko oinarri arautzaileak iragartzerakoan. Horregatik, honen bidez dagozkion zuzenketa egiten dira:

Euskarazko zutabea,

*** 3. Artikulua. Onuradunak**

- *Dioen lekuan:*

"I. XEDEA

3. artikulua. Onuradunak.

Beka hau, kultur eremuren batean diharduten edo hasi nahi duten pertsona fisikoek lor dezakete; betiere Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia, Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoan erroldatutako sortzaileak badira (gutxienez 2 urte).".

- *Ondorengoa esan behar du:*

"I. XEDEA



3. artikulua. Onuradunak.

Beka hau, kultur eremuren batean diharduten edo hasi nahi duten pertsona fisikoek lor dezakete; betiere Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia, Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoan erroldatutako sortzaileak badira (beka hauen deialdia argitaratzen denetik).”.

*** 10. Artikulua. Diru-laguntza ordaintzea.**

- *Dioen lekuan:*

“I. XEDEA

10. artikulua. Diru-laguntza ordaintzea.

Programa honen kontura emandako diru-laguntzak bi zatitan ordainduko dira:

- 2021: Sorkuntzaren eta ekoizpenaren % 40 apirilean eta % 60 azaroan.
- 2022: Hedapenaren % 40 otsailean eta % 60 irailean.”.

- *Ondorengoa esan behar du:*

“I. XEDEA

10. artikulua. Diru-laguntza ordaintzea.

Programa honen kontura emandako diru-laguntzak bi zatitan ordainduko dira:

- 2021: Sorkuntzaren eta ekoizpenaren % 50 apirilean eta % 50 azaroan.
- 2022: Hedapenaren % 50 otsailean eta % 50 irailean.”.



*** 14. Artikulua. Onuradunen eskubideak eta betebeharrak.**

- Dioen lekuan:

“V. DIRU-LAGUNTZEN KONTROLA

14. Artikulua. Onuradunen eskubideak eta betebeharrak.

a) Eskubideak

Sortzaileek beren lanen ustiapenak, aurkezpenak eta emanaldiak egin ahal izango dituzte beka deialdi honek proposatzen duen zirkuitu kulturaletik kanpo behin zirkuitua amaituta, hau da 2022ko irailetik aurrera. «Geuretik sortuak» zirkuitu honetatik kanpo egiten diren lanen ustiapenek edo egiten diren aurkezpenek edo emanaldiek, deialdi honetan zehaztutako diru kopuru («katxeta») berdina edo handiagoak izan ahal dira.”.

- Ondorengo esan behar du:

“V. DIRU-LAGUNTZEN KONTROLA

14. Artikulua. Onuradunen eskubideak eta betebeharrak.

a) Eskubideak

Sortzaileek beren lanen ustiapenak, aurkezpenak eta emanaldiak egin ahal izango dituzte beka deialdi honek proposatzen duen zirkuitu kulturaletik kanpo behin zirkuitua amaituta, hau da 2022ko irailetik aurrera. Hala ere, kasu zehatzen batean, sortzailearen bati edo talderen bati baldintza honek arazorik ekarriko balio, bere egoera aztertuko litzateke eta baldintzak alda litezke Udalbiltza Partzuergoak egokia ikusiko balu. Azken finean deialdi honen xede nagusietako bat euskarazko sortzaileei sostengua eta bultzada ematea da eta inolaz ere ez, eragozpenik sortzea. “Geuretik sortuak” zirkuitu honetatik kanpo egiten diren lanen ustiapenengatik edo egiten diren aurkezpenengatik



edo emanaldiengatik eskatzen diren diru kopuruak (“katxeta”), deialdi honetan zehaztutako diru kopuru (“katxeta”) berdina edo handiagoak izan ahal dira.”.

Oiartzun, 2021eko urtarrilaren 20a.— Jabi Asurmendi Sainz, Udalbiltza Partzuergoko lehendakaria.